



ARABAKO EKONOMIA: ***Egoeraren adierazleak***

2022ko Azaroa

www.araba.eus





AURKIBIDEA

1. EKONOMIA INGURUNEA	3
2. ARABAKO EKONOMIA	7
2.1. KANPO MERKATARITZA	8
2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA	9
2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA	10
2.4. INDUSTRIA EGOERA	11
2.5. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA	13
3. LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK	14



EKONOMIA INGURUNEA

- EBn hazkunde aurreikuspenak gainditu ziren 2022ko lehen sei hilekoan, kontsumo pribatuaren gorakadari esker, COVID-19ari eusteko neurrien erlaxazioaren ondoren. Hedapenak jarraitu egin du urteko hirugarren hiru hilekoan, erritmo motelagoan bada ere.
- Lehen sei hileko gogor baten ondoren, Errusiaren inbasioak Ukrainan eragindako asaldurek munduko eskariari eragiten diote eta inflazioaren presioak indartzen ari dira. EB ekonomia aurreratuen artean eragindakoetako bat izan da, gatazkatik gertu dagoelako eta Errusiaren gas inportazioekiko mendekotasun handia duelako. Krisi energetikoa etxeek erosteko duten ahalmena higatzen eta ekoizpena oztopatzen ari da.
- Ziurgabetasun handiko testuinguru horretan, Europako Batzordeak azaroan argitaratutako azken txostenean aurreikusten du EB, euroaren eremua eta estatu kide gehienak atzeraldian sartuko direla urteko azken hiru hilekoan. Hala ere, 2021eko bulkada handiak eta urteko lehen sei hilekoan izandako hazkunde sendoak BPGd erreala 2022an, oro har, % 3,3ra arte haztea espero du EBn (% 3,2 eurogunean).



EKONOMIA INGURUNEA

- 2023an jarduera ekonomikoa moderatua izatea aurreikusten da, BPGden % 0,3ko hazkundearekin, bai EBn, bai eurogunean. 2024rako, hazkunde ekonomikoa suspertzen joatea espero da, EBn batez beste % 1,6 eta eurogunean % 1,5.
- Inflazioari dagokionez, Europako Batzordearen kalkuluen arabera, prezioen gaineko presioen igoerak inflazioa maximora bultzatuko du urte amaieran, eta inflazio tasaren urteko proiektzioa % 9,3ra igoko du EBn eta % 8,5era eurogunean 2022an. Halaber, espero da inflazioak behera egingo duela 2023an, baina nahiko altu jarraituko duela, % 7,0an EBn eta % 6,1ean euroaren eremuan, 2024an apaldu aurretik, % 3,0ra eta % 2,6ra iritsi arte, hurrenez hurren.
- 2022ko lehen hiru hiruhilekoetan BPGdek izan duen hazkunde handiak eta COVID pandemiarekin lotutako laguntzak pixkanaka ezabatzeak defizit publikoaren beste murrizketa bat bultzatu dute 2022an, etxeetan eta enpresetan energiaren prezioen igoeraren ondorioak arintzeko hartutako neurri berriak gorabehera. 2021ean BPGden % 4,6ra jaitsi ondoren (% 5,1 eurogunean), Batzordeak aurreikusi du EBren defizita BPGden % 3,4raino jaisten jarraituko duela 2022an (% 3,5 eurogunean).



EKONOMIA INGURUNEA

- Hala eta guztiz ere, Batzordeak espero du 2023an defizit publikoa zertxobait igoko dela (% 3,6ra arte EBn eta % 3,7ra arte euroaren eremuan), jarduera ekonomikoa ahultzen doan heinean eta gobernuek energiaren prezio altuen eragina arintzeko laguntza berriak sartu edo zabaltzen dituzten heinean. 2024rako defizita BPGden % 3,2koa izatea aurreikusten da EBn eta % 3,3koa eurogunean, hazkundeari berriro ekitearekin eta laguntzak kentzearekin.
- EBko BPGdekiko zorpetze publikoaren ratioari dagokionez, 2021eko BPGden % 89,4tik 2024ko BPGden % 84,1era igarotzea espero da (eta euroaren eremuan % 97,1etik % 91,4ra).
- Espainiarako, Europako Batzordearen kalkuluen arabera, ekonomia % 4,5 haziko da 2022an, eta udan aurreikusitakoa baino ehuneko puntu erdi gorago kokatuko da; aldiz, hazkunde aurreikuspena % 1era jaitsiko da 2023rako, eta % 2ra igoko da 2024rako; beraz, Espainiak atzeraldi teknikoa gaindituko luke, nahiz eta atzeraldi horrek eragina izan Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan.



EKONOMIA INGURUNEA

- Espainiako Gobernuak urrian argitaratutako azken aurreikuspenen arabera, Espainiako BPGdek % 4,4ko hazkundearekin itxiko du 2022. urtea, eta 2023an % 2,1eko igoerarekin egitea espero da. Zor publikoari dagokionez, Gobernuak espero du 2022an BPGden % 115,2koa izatea, eta 2023an % 112,4koa. Halaber, 2022rako eta 2023rako BPGden % 5eko eta % 3,9ko defizita kalkulatzen du, hurrenez hurren.
- Estatistika Institutu Nazionalak dioenez, Espainiako ekonomiak 2022ko lehen hiruhilekoan bere BPGden urte arteko % 3,8ko hazkundera izan zuen; aurreko hiruhilekoan %6,8koa izan zuen, eta 2021eko hirugarren hiruhilekoan, % 4,2koa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren BPGdk, bestalde, Eustaten azken aurrerapenaren arabera, % 3,8ko urte arteko hazkundera positiboa izan zuen 2022ko hirugarren hiruhilekoan; aurreko hiruhilekoan % 5,0koa izan zen eta 2021eko hirugarren hiruhilekoan % 4,7koa.
- Irailean, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko hazkundera ekonomikoaren 2022rako aurreikuspenak berrikusi ditu. Aurten Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren hazkundera % 4,3koa izatea espero da, eta urtearen amaierara arte dezelerazio leuneko profila izatea. 2023rako itxaropenek okerrera egin dutenez munduko ekonomiarentzat eta euskal ekonomiaren ingurune hurbilenarentzat, % 2,1eko hazkundera aurreikusten da datorren urterako.



ARABAKO EKONOMIA

- **2022an, Arabako kanpo merkataritza portaera positiboa izaten ari da. Horiek horrela, irailera arte (eskura dagoen azken datua), Arabako esportazioek % 29,6ko hazkunde metatua izan dute. Hala ere, urteko hirugarren hiruhilekoan moteldu egin da hazkundearen erritmoa (% 21,2, eta bigarren hiruhilekoan % 51,6).**
- **Arabako industria jarduera ere portaera positiboa izaten ari da, nahiz eta hazkunde erritmoa 2021ean batez beste izandakoa baino zertxobait txikiagoa izan (% 8). Industria ekoizpenaren indizeari buruz argitaratutako azken datuak adierazten du indize horren hazkunde metatua % 6,2koa izan dela 2022ko lehen bederatzi hilabeteetarako, urtaroen eraginak zuzendu ondoren.**
- **Esportazioen eta industria jardueraren portaerarekin bat etorriz, eta Eustaten datuen arabera, Arabako BPGdk % 3,9ko hazkundera izan zuen urteko hirugarren hiruhilekoan, 2021eko hiruhileko beraren aldean. 2022ko bigarren hiruhilekoan % 4,9koa izan zen hazkundera.**
- **Inflazio tasa altuak erregistratzen jarraitzen den arren, urriko tasa (% 6,7) joan den uztailekoa (% 10,5) baino txikiagoa da, urte horretara arte erregistratutako tasarik altuena.**



Kanpo Merkataritza


(Urtearteko bariazio tasa)

	2020	2021 (*)	2022ko metatua (*)	Azken datua (*)	Data
Esportazioak	-12,0	18,6	29,6	42,4	22-iraila
Inportazioak	-8,9	18,2	30,8	47,3	22-iraila
Estaldura Indizea (%)	161,4	162,0	162,8	180,0	22-iraila

Arabako esportazioek % 29,6ko hazkunde metatua izan dute urteko lehen bederatz hilabeteetan, eta inportazioek % 30,8koa.

Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Aduanetako Idazkaritza

(*) Behin-behinekoa






Benetako Barne Produktu Gordina

Arabako BPGdek % 3,9ko hazkundera izan du 2022ko hirugarren hiruhilekoan, iazko hiruhileko beraren aldean, EUSTATen datuen arabera. Urteko bigarren hiruhilekoan hazkunde tasa hori % 4,9koa izan zen

2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean, hiruhileko arteko aldakuntza tasa zenbatetsia $-\%0,7$ izan da, lehen aldiz negatiboa zazpi hiruhilekoan jarraian hazkunde positiboa izan ondoren.



Iturria: EUSTAT


(*) behin-behinekoa



Industria Ekoizpena

Eustaten datuen arabera, eta lan egutegi homogeenari dagokionez, 2022ko irailean Arabako industri produkzioa 2021eko hil berean izandakoa baino % 14,5 handiagoa izan da. Arabako Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde metatua % 6,2koa izan da urteko lehen bederatzi hilabeteetan

IEA. Urterako hazkundera






Industriaren Egoera

Industriaren Koiunturari buruzko Inkestaren arabera, 2022ko bigarren hiruhilekoan, enpresek eskaera zorroari eutsi diote, baina 2022aren amaierarako murrizketa espero dute.


Epe laburrerako itzaropenek erakusten dute ekoizpena hazi egin dela, baina guztizko salmentak, esportazioak, eskaera zorroa eta okupazioa jaitsi egin direla 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.



Iturria: Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera



(BPG ETA IEA) BILAKAERA



(Urtearteko bariazio tasa)


	2020				2021				2022		
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
ARABA											
BPG	-3,5	-21,8	-8,7	-7,8	-2,6	20,7	3,7	4,2	5,6	4,9	3,9
IEA	-7,1	-30,0	-9,0	-5,6	-1,6	32,6	2,8	3,0	6,1	9,3	2,8
EAE											
BPG	-3,0	-19,8	-8,1	-7,5	-2,8	19,1	4,7	4,9	5,8	5,0	3,8
IEA	-5,6	-27,6	-12,0	-7,2	-0,6	32,7	7,0	6,4	8,1	7,5	3,4
ESTATUA											
BPG	-4,7	-21,9	-9,2	-9,5	-4,4	17,8	4,2	6,6	6,7	6,8	3,8
IEA	-6,6	-24,2	-5,2	-2,0	2,8	26,3	1,7	1,8	1,5	5,0	4,4



Erregistratutako Langabezia

Langabeziak behera egin du Araban urrian, 52 pertsona gutxiago, % 0,27. Jaitsiera horrekin, 19.326 langabe daude guztira. Aurreko urtearen aldean, langabezia % 3,16 jaitsi da, 631 pertsona gutxiago.

Sektoreka, Araban sektore guztietan jaitsi da langabezia aurreko hilaren aldean, nekazaritzan izan ezik. Aurreko urtearekin alderatuta, langabeziak behera egin du sektore guztietan, zerbitzuetan izan ezik.





Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

(Urtearteko bariazio tasa) (%)

	2020	2021	2022ko metatua	Azken datua	Data
BPG					
Estatua	-10,8	5,5		3,8	22-III Hi
EAE	-9,6	5,9		3,8	22-III Hi
Araba	-10,5	5,9		3,9	22-III Hi
IEA					
Estatua	-9,7	7,3	3,7	3,6	22-iraila
EAE	-13,3	10,4	6,4	3,7	22-iraila
Araba	-13,2	8,0	6,2	14,5	22-iraila
KPI					
Estatua	-0,5	6,5		7,3	22-urria
EAE	-0,3	6,4		6,9	22-urria
Araba	-0,6	6,8		6,7	22-urria
ESPORTAZIOAK					
Estatua	-9,4	20,1	24,7	22,2	22-iraila
EAE	-17,1	21,5	29,8	21,8	22-iraila
Araba	-12,0	18,6	29,6	42,4	22-iraila
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA					
Estatua	22,9	-20,1		-10,5	22-urria
EAE	13,2	-11,1		-5,6	22-urria
Araba	16,1	-10,6		-3,2	22-urria

Datu absolutuak (%)

LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE)					
Estatua	15,5	14,8		12,7	22-III Hi
EAE	9,5	9,8		8,3	22-III Hi
Araba	7,8	10,5		8,6	22-III Hi
LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT)					
EAE	10,6	10,0		7,9	22-III Hi
Araba	11,0	10,5		8,4	22-III Hi

Iturriak: INE, EUSTAT, SEPE, Aduenetako Merkataritza